



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



PRENTSA-OHARRA

DEIADAR MENDIEN EGUNA IRAILAREN 24AN, ZAPATUAN, OSPATUKO DA GORBEIAN

- **Pandemiaren ondorioz azken edizino biak bertan behera geratu ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiek tradizioa berreskuratu dabe**

(Bilbon, 2022ko garagarrilaren 18an). Bizkaiko Batzar Nagusiek kordada barria zabalduko dabe, oso tradizio berezia ospatzeko. Kondairak aitatzten dau adarraren soinua Gernikan egiten ziran bileren deialdia iragarten ebala, eta zapatuan, irailak 24, Gorbeia egingo dan igoeran Deiadar Mendien Eguneko XVII. ediziora batzen diran personak orientauko ditu. Bizkaiko sabaia izango da ospakizun horren agertokia, aurreko urteetan beste lau gailurretara (Ganekogorta, Kolutza, Sollube eta Oiz) igon eta azken edizino biak pandemiaren ondorioz bertan behera geratu ostean.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, erakundea hau barriro lanean hasi zantetik 25 urte bete ziralda eta 2004an hasitako tradizioari eutsiz, lurraldeko bost mendi taldegaz lankidetzan gauzatuko dabe ohitura hori: Balmaseda Mendi Taldea (Balmaseda), Gailurra (Bilbo), Ganzabal (Lemoa), Sollube 707 (Bermeo) eta Alpino Tabira (Durango). Martxea goizeko 9:30ean abiatuko da Pagomakurretik. Parte-hartzaileak Gorbeia tontorrera igongo dira, 6 kilometroko igoerearen ostean eguerdiko 12:00etan adarrak joteko ohitura zintzo betetako.

Bizkaiko antxinako tradizioak gogora ekarteko jardunaldi horretan, egun horretarako apropos egindako adarra erabilten da, eta adar hori urtero-urtero eroaten da deiadar-tontor batetik bestera. Aurton, Kurutzearen ondoan adarren soinua entzun ostean, antolatzaileek jai-gune txiki bat jarriko dabe Arrabako aterpean, eta bertan ez dira faltauko musika, dantzak eta igoera egin dauenarentzako aperitibo txikia. Kirol igoeraz arduratuko dan Lemoako Ganzabal klubak, Balmaseda Mendi Taldeko ordezkariari emongo deutso lekukoa, ohitura danez, 2023an Kolutzarako igoera antolatuko dauen kluba da-eta. Holan, deiadar mendietara igoteko zikloagaz jarraituko da.

Deiadar Mendien Eguna mendi zaleen eta euskal tradizioen arteko martxa klasikoa bihurtu da. 2019an egindako azkenengo edizioan (2020koak eta 2021ekoak bertan behera geratu ziran), ehundaka persona joan ziran Ganekogorta mendira Bizkaiko Batzar Nagusietarako deian parte hartzera, iraganean Bizkaiko ordezkariak Gernikako haretxaren inguruan jarteko egiten ziran deialdiak gogoratuz, une historiko bakoitzean herriarrak okupau eta arduratu dituen gaiak jorratzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

LEGENDAREN ETA ERREALIDADEAREN ARTEAN

Gernikako bilerak deitzeko mendietan deiadarrak joteko ohiturea misterioz beteta egon da beti. Gaia argitzeko, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Enkarterriko Museoak ikerketa-lana egin eben 2020an. Azterlan horrek ondorioztatu eban Bizkaiko bost gailur enblematikoetan adarren bidez foru-uribildura joateko deialdia, Gernikako Batzar Etxean antxina egiten zan ekitaldi bati buruz Antonio de Trueba kronistak XIX. mendean egin eban berrinterpretazino historikoa zala.

Javier Barrio eta Goio Bañalesen “Bost dei-adarrak jotzea. Bizkaiaren sinbolo” ikerketa-lanean egiaztatu da Galdamesko historialariak Foruak etenbako erasoak jasoten ari ziran momentu batean berrinterpretatu ebala ekitaldi hori. Truebaren eretziz, bost deiadar hareen soinuak, bizkaitarrek euren legeakaz gobernetan jarraitzea ahalbidetzen eban Bizkaiko Jaunaren eta bizkaitarren artean sinatutako ituna sinbolizetan eban.

Adarrak bailaratik gailurrera, hau da, foru-uribildutik lurraldeko bost mendietara, eroateko ekintzea, tradizinoa gure garaietara egokitzearen ondorioa da, eta ohitura eta erakunde errotuenak, Batzar Nagusiak kasu, defendiduteko ahalegina. Antonio de Trueba izan zan gaur egun ezagutzen doguzan mendiak aitatu ebazan lehenengoa. Orain dala 150 urte, Gorbeia, Ganekogorta, Oiz, Sollube eta Koltzatik Batzar Nagusietara deitu izanaren ustea euskal historiografian eta iruditeria herrikoian sartu zan, eta gaur egunera arte iraun dau.

Egia esan, bost deiadarrak existidu ziran, baina antxinako liburu batzuk Gernikan kokatzen ditue XIV. gizaldian. Juan Núñez de Balboaren 1342ko koaderno batean jasotako “*En la Junta de Garnica, seyendo juntado cavalleros e escuderos / e fijosdalgo de Vizcaya, llamados a Junta General, e **tannidas las cino vozinas***” testua, deiadarren tradizinoari buruzko lehen aitamena, hartu da Bizkaiko Batzar Nagusietara deitzeko urtero gailur desbardin batera igoteari eusteko erreferentzia lez.


LIBURUA DESKARGETAKO ESTEKEA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros



<https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/publicaciones.asp?offset=2>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

EL DÍA DE LOS MONTES BOCINEROS SE CELEBRARÁ EL SÁBADO 24 DE SEPTIEMBRE EN EL GORBEA

- **Las Juntas Generales de Bizkaia recuperan esta tradición tras suspenderse las dos últimas ediciones por la pandemia.**

(*Bilbao, a 18 de julio de 2022*). Las Juntas Generales de Bizkaia volverán a abrir una nueva cordada para la celebración de una tradición muy especial. El sonido del cuerno con el que dice la leyenda se anunciaba la convocatoria de las reuniones que se celebraban en Gernika, orientará el sábado, 24 de septiembre, en su ascensión al Gorbea a las personas que se sumen a la XVII edición del Día de los Montes Bocineros. El techo de Bizkaia será escenario de esta celebración tras sucesivas ascensiones, años atrás, a las otras cuatro cumbres bocineras (Ganekogorta, Kolutza, Sollube y Oiz) y después de que las dos últimas ediciones tuvieran que suspenderse por la pandemia.

Las Juntas Generales de Bizkaia, continuando con la tradición iniciada en el año 2004 con motivo del 25 aniversario del restablecimiento de esta institución, llevarán a cabo esta costumbre en colaboración con cinco clubes de montaña del territorio: Balmaseda Mendi Taldea (Balmaseda), Gailurra (Bilbao), Ganzabal (Lemoa), Sollube 707 (Bermeo) y Alpino Tabira (Durango). La marcha partirá a las 9.30 de la mañana desde Pagomakurre. Los participantes ascenderán a la cima del Gorbea para cumplir fielmente con la tradición de tañir los cuernos a las 12 del mediodía, tras dejar atrás 6 kilómetros de ascensión.

En esta jornada, recordatorio de antiguas tradiciones vizcaínas, se utiliza un cuerno realizado de forma expresa para este día, que se va trasladando anualmente por las distintas cimas bocineras. Este año, tras el sonido de los cuernos junto a la Cruz, la organización dispondrá en el refugio de Arraba de un pequeño espacio festivo en donde no faltarán la música, las danzas y un pequeño aperitivo para quien haga la subida. El club Ganzabal de Lemoa, encargado de la ascensión deportiva, cederá, como es tradición, el testigo al representante del Balmaseda Mendi Taldea, club que organizará la subida al Kolutza de 2023, continuando así con el ciclo de ascensiones a los montes bocineros.

El Día de los Montes Bocineros se ha convertido ya en una marcha clásica entre los aficionados a la montaña y las tradiciones vascas. En la última edición celebrada en 2019 (las del 2020 y 2021 se suspendieron), cientos de personas acudieron al monte



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Ganekogorta para participar en la llamada a las Juntas Generales de Bizkaia, recordando las convocatorias que se hacían en el pasado para que los representantes vizcaínos se sentaran junto al Roble de Gernika para tratar los asuntos que en cada momento histórico han ocupado y preocupado a la ciudadanía.

ENTRE LEYENDA Y REALIDAD

La tradición de tañir las bocinas en los montes para convocar las reuniones de Gernika, ha estado siempre cargada de misterio. Para arrojar luz sobre el asunto, la Cámara vizcaína y el Museo de Las Encartaciones realizaron un trabajo de investigación en el año 2020. Este estudio concluyó que la convocatoria sonora para acudir a la villa foral por medio de bocinas o cuernos en cinco cumbres emblemáticas de Bizkaia, fue una reinterpretación histórica que hizo el cronista Antonio de Trueba en el siglo XIX de un acto que, en verdad, se hacía antiguamente en la Casa de Juntas de Gernika antes de cada reunión.

En el trabajo de investigación “El tañido de las cinco bocinas. Símbolo de Bizkaia”, de Javier Barrio y Goio Bañales, se constata que fue el historiador de Galdames quien reinterpretó este acto en un momento en el que los Fueros estaban siendo atacados constantemente. Para Trueba, el tañido de aquellas cinco bocinas simbolizaba el pacto firmado entre el Señor de Bizkaia y las vizcaínas y vizcaínos, que permitía que estos siguiesen gobernándose con sus propias leyes.

El traslado del acto de tañir los cuernos del valle a la cima, es decir, de la villa foral a los cinco montes del territorio, es una adecuación de la tradición a nuestros tiempos y un intento por defender las costumbres e instituciones más arraigadas, como eran las Juntas Generales. Antonio de Trueba fue el primero que mencionó los montes que hoy conocemos. Hace 150 años, la creencia de la llamada a las Juntas desde el Gorbea, Ganekogorta, Oiz, Sollube y Kolutza, se instala en la historiografía vasca y en el imaginario popular perdurando hasta nuestros días.

En realidad, las cinco bocinas existieron, pero diversos libros antiguos las sitúan en Gernika en el siglo XIV. “*En la Junta de Garnica, seyendo juntado cavalleros e escuderos / e fijosdalgo de Vizcaya, llamados a Junta General, e tannidas las cinco vozinas.*” Recogido en un cuaderno de Juan Núñez de Balboa de 1342, esta primera cita sobre la tradición de los bocineros, se ha tomado como referencia para sostener el hecho de que cada año se suba a una cumbre diferente para llamar a las Juntas Generales de Bizkaia.


ENLACE PARA DESCARGARSE EL LIBRO



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros



<https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/publicaciones.asp?offset=2>